

Uztailak 3, 4 eta 5. Donostiako EHU. 9:00-14:00

Ikastaro honen helburua antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketaren entrenatzea da, gero horiek ikasleekin edo hainbat talderekin tresna pedagogiko moduan erabiltzeko. Antzerkia edozein ikasgaitan erabili daitekeen metodologia berritzaile eta sortzaile baliozgarria izan daiteke.

➤ **Norentzat**

Irakasleentzat, hezitzaileentzat, gizarte langileentzat eta garapen pertsonalean eta sozialean interesa duen edonorentzat.

➤ **Landuko diren gaiak**

- Beroketa jolasak
- Gorputz adierazpenerako ariketak.
- Antzerki/drama estrategiak: irudi teknikak, inprobisazioak, eszenen sorkuntza, aulki beroa, irakasle rolean, idazketa rolean, forum antzerkia...
- Desinhibizioa, gorputz adierazpena, sormena, autoezagutza, enpatia, emozioen adierazpena, gatazken konponbidea.

➤ **Metodologia**

Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da estimulu ezberdinetatik abiatuta: egunkariak, ipuinak, margoak, argazkiak... Talde osoan, talde txikitan edo banaka landuko ditugu gai ezberdinak. Testuinguru babestua eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin. Prozesua ongiulertzeko, dinamizatzaileak behar diren azalpenak emango ditu, eta talde hausnarketari leku garrantzitsua eskainiko zaio.

* **Esther URIA.** Psikopedagogo eta Hezkuntzan Doktorea. Aktore profesional gisa antzerkian, telebistan eta zinean ere badu eskarmentua. Momentu honetan EHUko Hezkuntza Zientzia Sailean irakasle da. Bere ikerketa lerroa antzerkian eta bizikidetzan oinarritzen da.